

# **BALIABIDEAK**

Erabiliko ditugun baliabideak hainbat multzoetan bana ditzakegu:

- 1. BALIABIDE FISIKOAK** - Lehenik eta behin, erabiliko dugun eraikina dago, hau da, fabrika. Fabrika horretan produktuaren ekoizpena eramatea izango da helburu. Fabrika horren barruan erabiliko ditugun material, makina eta produktuaren fabrikazioa baliabide hauen barruan kokatuta egongo litzateke. Sare sozialak maneiatzeko erabiliko ditugun aparatuak (mugikorrek, ordenagailuak, etab.) baliabide fisikoak dira.
- 2. BALIABIDE INTELEKTUALAK ETA GIZA BALIABIDEAK** - Sektore honetan langileak sartu egingo lirateke. Gure kasuan bakoitzak funtzio zehatz bat du (elkarte atalean aipatutakoa), hau da, Ane Barrenecheak diru kontuak eramango ditu, Anerrek teknologia aurrerapenetaz arduratuko da, Ane Ayarzagüenak kreatibitatea eta diseinuaren arduraduna izango da eta, azkenik, Eunate, taldea aurrera eramatea izango du helburu. Gu laurok enpresaren buruak izango gara, baina, gainera, gure produktuaren sorreran lan egingo duten jendea ere badago. Talde horren barruan mikrotxip-a erabili ahal izateko ingeniariak behar ditugu eta makinetan lan egin behar duten pertsonak ere behar ditugu.
- 3. FINANTZA BALIABIDEAK** - Lehenik eta behin, guk bankura eskatutako kreditua sartuko litzateke. Diru horrekin gure negozioarihasiera bat emateko gai izango gara. Gainera, baliteke Gaztenpresak diru-laguntza bat ematea, 30 urte baino gazteagoak diren enpresei zuzendutakoa. Horrez gain, hasi berriko enpresei AFA-k inbertsio bat ematen dizkio mikroenpresei, uste badu proiektua bideragarria dela, 15 mila euroko diru laguntza eman dezake.